

# Goibeko kale

EL GETAKO ALDIZKARIA

1996ko apirila. 12zk.

## ASENTZIO IRABAZLE

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta cruzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.



## Hauxe da boterearen erabilpen egokiaren adibidea, bai horixe !!!

Honelakoak dira Elgetako alkateak bere boterearekin hartzen dituen erabaki guztiak. Bere boterea dela medio, komenigarriak zaizkion proposamenak aurrera eramaten ditu, inori inongo azalpenik eman eta onarpenik eskatu gabe.

Apirilaren 16an Elgetako udaletxean egin zen Gazte eta Kirol batzordeko erabaki batzuei buruzko azalpen batzuk egiteko premia ikusten dugu.

Ekintza hau pilotarekin zuzenean erlazionatuta dago. Zera izan da: azken unean Elgetako alkateak pilotalekuan antolatu behar ziren pilota partiduak zirela eta, lekua margotzeko premiaren proposamenaren berri jakin zuela. Ondoren, Kirol batzordeari inongo argitasunik edo azalpenik eman gabe, baiezkoa eman eta gastuen ardurara ere argituta utziz. Honek zera esan nahi du, alkateak bere kabuz manipularzen zituela eta dituela erabakiak.

Erabaki hau 13an, igandea hartu zuen. Lanak hasi baino lehen kiroleko zinegotziari berri emateko denbora euki arren, kiroleko zinegotziak batzordean bertan izan zuen honen berri.

Ez da hau lehenengo aldia Patxi horrela jokatzeko duena. 1995ean aurrekontuetan onartuta zegoen diru kopuruaz gain, 140.000pta gehiago onartu zuen inolako agiririk aurkeztu gabe eta batzordea kontutan izan gabe.

Beraz, argi gelditu dadila ez dagoela pilotaren edo txirrindularien aurkako inongo adierazpenik; ezta asmo txarrik ere; baina badaezpada azalpentxo hauek. Gure protesta Patxi erabiltzen dituen metodoengatik baita.

Denok dakigun bezala ikustea nahi ez duena baino itsuagorik ez dago.

Elgetako udaletxeko Herri Batasunaren kirol batzordekideak.

## Egi eguna Elgetan.

Martxoko azken asteburuan EGI egunaren inguruan Elgetan egin ziren ekitaldiengatik aipamen eta kritika batzuk jaso genituen *Goibekokaleko* apirileko zenbakian. Karta horietan esandakoak ez zaizkigu batere zuzenak iruditzen eta hona hemen gure azalpenak.

Aldez aurretik, zera adierazi beharrean gaude:

1- Udalak ez zituen ekitaldiak antolatu, EGik baino. Jasotako proposamena onartu besterik ez zuen egin Udalak edozein erakunde edo elkarterekin egiten duen bezala eta kriterio berdinak erabiliz.

2- EGI egunerako Udaletxetik eman ziren "erraztasunak" Udalak ez dizkio sekula inori ukatu.

3- Herriar batzuk molestia jasan zitzaizkela onartzen dugu baina ez gero EGI eguneko ekitaldiak aipatzea molestia iturri bakar bezela. Asteburu horretan gertatu zena beste egun askotan ere gertatzen da: jaiak, kontzertuak, txirrindulari lasterketak, etab. eta ezinbestean onartzen ditugu denok kartak idazten hasi gabe.

EGI eguna oso jai polita izan zen herriarentzako, ekitaldi ugari eta guztiz irekiak elgetar guztiok parte har genezan. Horretaz gain, Elgetaren ize-na lau haizetara zabaldu zen egun horietan eta hori beti da ona, pelota txapelketak, jaiak edo txirrindulari lasterketak direnean bezelaxe.

Ezer jakin gabe, "arrazoi izkutuak, interes pertsonalak, inposaketak, montajeak, etab." sumatzen dituztenak ez dute erantzunik ere merezi. Agian, horrelakoekin iraindu nahian dabilzatenak horretara ohituta izango dira. Jakin bezate gure alderdian horrelakorik ez dela, herriaren aldeko lana baikik.

Herriaren alde hobia zer den erabakitzerakoan eztabaidak izan dai-

tezke eta komeni ere, baina lehenbiziko baldintza elkarrenganako errespetoa da, eta horretan batzuk badute zer eta non ikasi.

EAJko Elgetako Uri Buru Batzarra.

## Haserrealdiak

Ez dakit aldizkari honetan idazteko aproposa irudituko zaizuen guztioi. Espero dut denoi, piska bat, burua zabaltzea eta bira eta bira eman, zuen buruari argibideak azaltzea.

Nire ustetan, guztiok edukitzen ditugu haserrealdiak. Baina, zer motatakoak dira? Ba al dakigu ziur zer den haserretzea? Bai, denok dakigu haserre hitzak, zerbaitegatik edo norbaitegatik haserretzea dela.

Era askotako haserreak edukitzen ditu gizakiak. Asko daudenez horietako bateronbat jartzea litzateke egokiena:

-Zuregatik gauza ezatseginak esatea, hau da, zu ez zaren gauza edo "insultoak".

-Lagun artean, norbait ez dagoenean oso ados beste bi lagun elkarrekin egoteaz, eta gure hitzekin esanda "pateatza" doanean (barkatu hitz honegatik). Enteratu beste biak, eta bien artean haserretu eta bestea pozik gelditzen den bitartean, beste biak hitzegin gabe gelditzen dira. Azkenean honen soluzio bakarra hau da: beti haserretzen dena isildu eta burumakur joan behar izaten du. Haserrearen hasten dituen berriz pozik eta bizkarrara tente-tente. Zergatik guzti hau? "Inork ez dakielako isilik egoten egon behar denean". Zergatik ez dugu ikasten esaldi honen esanahia? horren zaila al da? Espero dut bai nik eta guztiok, mundu honetan konklusio honetara iritea.

Iratxe Uzuriaga.

# labarria

## AUTOBUSAK

San Juan, 18

48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

Tel. Mugikorra

908 - 67 52 56 (Eibar)





## Non paraje hobeagoa...

**E**lgetako ereserkiko hitzetatik hartutako izenburua duzu

lerro hauen aurkezpena.

Aukezpen hori merezi du, ASENTZIO GUNEAK?

Begiratu besterik ez dago baieztatzeko. Bere baseliza, pagadia, potzua, bista ederrak, etab.

Berezko eskualde ederraz gain, mahaiak, erretokiak, zinguluak, iturria (nahiz eta lerro hauek idazteko unean urik gabe egon), partikularra izan arren elkarteko eraikin polit bat inguru egokitu batekin... Zer gehiago eskatu?

Egia, daukaguna baino gehiagoren bila gabiltzala beti. Gune horrekin berdina gertatzen da.

Esate baterako, Ordiziako OJANGUREN PARKEA ikusita, amets egitea berezkoa da. Babestoki ederra, ostatua, kanpoan egoteko leku ederrekin, kafetegia, pasealeku bikainak eta beste. Parke sarrera aurretik aparkaleku handiak...

Alde batetik hartzeko beti prest gaude, eta bestetik emateko?

Hura bezalako edo antzeko parke bat egiteko ordainketa handi bat egin beharra dagoela jakina da, eta une honetan ez garala iristen. Baina egin zen proiektuaz ahaztu ere bai? Ezetz diot, eta aurrerabideen bila jarraitzeko.

Egiteaz gain, zaindu eta mantendu ere egin behar da. Lehenagokoa ondo zaindu dezagula, eta gehiagotzea egiteko bidea jartzeko animatu.

Aurrera bada!

Joakin Gaztesi



## Aurtengo txiribitak zuretzat, Josu

**Z**ertaz idatziko nuen pentsatzen, zuretzat idatzeko barrena abiatu naiz. Orain urte batzuk, zuri idatzi aurrekoetan sarri egin nuen bide berean. Ideiak, hitzak, esaldiak, mataza nahaspilatuan dena...

Ohartzerako joan-etorria egin dut kasik, txibiritan-erramiletea ere bildu dut... Udaberriko opariak gozatu ditut... ia guztiak. Eta hariari heldu ezinik artean...

Aitari entzundako pasadizoak ekarriko nituela ia erabakitzeaz bat, horiek beste artikulua-mota bat merezi dutela hobetsi dut. Ondoren Aitorren urtebetetzea ere bagenuela eta gaiari ekin diodanerako, Aitorrenaren biharamuneko urteurrenak bete dit gogoan. Batean ohartu naiz honelako egun ederretan sarri etorri nintzela hona, udaberria (uda, udazkena, zein negua) arnastu eta sasoiaren sasoiaren loreren bat bildu eta gutuntzaren batekin zuri bidaltzeko asmotan. Portzientza, ez dakit lore-hosto xumeak nola ireisten diren gartzelazietara, ezta iristen diren ere sikiera. Asmoa jarri aurretik bildu dudako lore-sorta honek ere zu nakar gogora: behin, hola, txibiritak, bere apaltasunean, lorerik ederrenetakoak direla esan zenidan. Harrezkero, udaberriero biltzen dizut erremileteren bat.

Lagun baten ulertzeraren bizitzaren bidean gutako bakoitzak berea egin behar du, eta denok elkarren ondoan joan arren, ez gara beti gurutzatzen. Gerta liteke, geltokiren batean baten bat igo eta harekin bidearen zati bat egitea, harik eta bat jaitsi arte. Bidaia luze horretan, lagun asko izaten da aditzera, baina ez dago denak ezagutzeko betarik.

Gaur, zuri idatzi aurrekoetan egin ohi nuen bide berean, Josu eta joxean tolosarrak ere izan ditut gogoan, eta hauek bezala, agian anonimoago geratu zaizkigun beste hogeitaka lagun: Ez nituen ezagutu, idatzi ere ez nien sekula egin, eta haien berri esker txarrekoen irakinak nekez baretuko dizkidan itsasoa lagun etxera nator.

Eramaiezu Josu, guztiei, txiribitatxo bana.

Bea Zabalondo

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Salvador Kalea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarteak. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Sarasua, Iker Irazabal eta Amaia Askasibar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelaioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Joakin Gaztesi, Beatriz Zabalondo eta Jon Arantzeta **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokaleko du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanpen eta iritzien erantzunkizunik.



## Jose Ignacio Lopez de Uralde: "Industrialdearen urbanizazio planak 182 miloiko oinarrizko aurrekontua du"

-Urbanizazioa, Gasolindegia eta Gas Sarearen lanak batera hasiko dira uztailetik aurrera -

Pagatzako industrialdea urbanizatzekeo lanak gehienez 182 miloiko aurrekontua izango dute. Obrak egiteko 17 enpresa aurkeztu dira.

Lanak egingo dituen enpresaren izena oraindik zehaztu gabe badago ere, baldintza batzuk ipini ditu udalaxeak: batetik, aurkeztutako aurrekontu guztien artean batzuk bestekora gehien hurbiltzen direnak izango dute aukera gehiago; bestetik, finantziario hoberena, proiektuari egiten zaizkion hobekuntzak eta enpresaren medio tekniko eta pertsonalak izango dira kontutan; azkenik, Elorrioko bidean egon daitezkeen trafiko mozketen aurrean soluzio bide onenak aurkezten duena ere kontutan izango da.

### Aspalditik behar ziren hobekuntzak dira

1986an egin zen lehen aurreproiektua eta 1995ean berriztu bazen ere, ez zen oso ondo definitua gelditu beraz obrak egingo dituzten enpresei inizatiba bat eskatzena.

Udalaxeak bitartekari lanak egiten ditu prozesu honetan, baina ordaintzaileak, Pagatzako industrialdean dauden enpresariak dira. Enpresak, jabe den m<sup>2</sup>-en arabera ordaindu beharko du eta udalaxeak adierazitakoaren arabera, denak daude ados planteamentu eta ordaindu beharrekoen aurrean.

Industrialdea hiru poligonotan dago banatuta. Hirugarrena da egin gabe dagoena. Egoera tamalgarriena lehen poligonoak du eta hortik hasiko dira. Urbanizazio lan hauek, argia sartuko da, jardinak eta zuhaitzak ere ipini dira, apartakalekuak egingo dira eta gasaren hodiak ere sartuko dira. Hirugarren poligonoa Elorrioko bidean egingo da eta 25m<sup>3</sup> lur aterako dute (3.000 mila kamioikada lur). Lur hau, gasolindegia egin behar den tokira eramango da, obra honetarako, 34m<sup>3</sup> lur behar baitira.

Urbanizazio lan hauek, 12 hilabetetan bukatzeko asmoa dago eta enpresariak aspalditik zuten eskaeraren erantzuna dira. "Ez dugu obra faraonikorik egin nahi, eskaerari erantzun baino ez" Industrialdearako Gestio lanetan ari den Jose Ignacio Lopez de Uraldek adierazi duenaren arabera. Berak azpimarratzen duen bete abantailak bat plan honek zoluaren prezioaren igo-



"93ko kostuak mantendu nahi dira etxe horniketari behintzat, 105.000ptako gastua beraz bere etxean gasa izan nahi duen erabiltzaile bakoitzari".

era izango da eta honekin batera enpresa bakoitzak duen lur sailaren hobetzea.

### Gas Sarearen lanak uztailean

Sarearen obrak Elgetako jaien ondoren hasiko direla esan du Lopez de Uraldek. Datorren hilabeteetik aurrera datu gehiago izango duen arren, urte bukaeran amaituta egongo omen da. Garrantzitsuenak, 93ko kostuak mantentzea da etxe horniketari dagokionez, 105.000 + B.E.Z (I.V.A). Repsolek hartu du horniketari lanen ardura eta obra Garre S.L enpresaren eskuetan dago.

**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio batetara. Tel: 768078

Berezitasuna. Buztana. Pintxo gozoak, otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JALETXEA

tel: 768284



## 1996ko aurrekontua onartuta

-EAJko lau botuekin onartu da aurrekontua-

Maiatzaren 15ean onartu zituen 1996ko urteko aurrekontuak Elgetako udaletxeak. Aurrekontuko proposamenari HBkoek ezezko botoa eman zuten.

249 milioiko aurrekontua onartu da. Kopuru honetatik 143 milioi Pagatza industrialderako inbertsioa izango da. 1995eko aurrekontutik %30ko igoera izan du, 1995ean, 193 milioi izan baitziren.

**P a t x i** Basauri alkatearen esanetan "austeritatezko aurrekontua da. Alde guztiak murriztu dira eta gastua suposatzen duen pezeta bakoi-tza aztertzen da".

Udal zorra %39koa da eta kredituen berrikuspenarekin %25era jaitea espero da.

### Arrekotuaren balorapena

Xabier Ezpeletak, HBko zinegotziak, euren ezezko botua "aurrekontuak aztertzeke eta lantzeko denbora ezean" oinarritu zuen.

Patxi Basaurik aldiz aurrekontua denboraz aurkeztu zuela adierazi zuen.



Udal zorra %39koa da, eta %25era bajatzea espero da.

## "Jai egunak jai egingo ditugu"

28an hasiko dira aurten jaiak. Arratsaldean haurrek gozatu ahal izango dute. Hamabietan hasiko da parranda gaua txupinazoa eta kaskajoan pregoiarekin. Iaz pregoneroa bazen ere aurten pregoneroa izango dela aurreratu dezakegu.

Zabale anaiak, Luhartz, Gaubela eta Lotxo plaza taldeak alaituko dute plaza ingurua. Rock doinuak nahiago dituenak

Gaztetxea du erreferentzi puntua. Adi! puntako taldeak datoz eta.

Jai batzordeak kuadrilak animatu nahi ditu. Horretarako zapatuan kuadrilen bazkaria eta gero Herri Kirolak antolatu ditu. Gauerako play-back-a.

Azoka nagusiko egunaren amaieran Sardina lurperatuko da eta lurperatzeko era bitxia proposatuko digute gainera.

### Erroldari buruzko oharra udaletxetik

Erroldaren %60 eginik dago, hala ere jende asko erroldan sartu gabe dagoela adierazi digute udaletzeko arduradunek. Erroldan sartuta ez dagoenak, herritar orok udaletxetik jaso dezakeen onuretatik kanpora gelditzen da. Ondorioz, deia jaso eta egin ez duenak udaletxera deitu dezala eskatzen zaio edo udaletxetik pasatzea arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean.

**Baserrietan bizi direnak ere** erroldan sartu behar direnez udaletxearekin kontaktuan ipintzeko eskatzen zaie. Telefono honetara deitu: 76.80.22. Edo arratsaldeankarnetarekin udal bulegoetatik pasatu.

### Elgetako Jubilatuentzako oharrak

1. Errioxarako ibilaldia izango da ekainaren 5ean. Autobusa goizko 8:30etan irtengo da. Bazkaria Laguardian izango da eta goiz partean bodega bat bisitatuko da. Prezioa 2.000 pta.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Erromarako bidaiak oraindik azarorarte jarraituko dute martxan. Iraupena 6 egunetakoa da. Prezioa 41.900pta eta izen ematea, Eibarren Toribio Etxeberria 3 edo Arrasateko Jose Maria Resusta 5. Diru laguntzak izango dira, diru sarrerak 37.000 pezetatik behera dituzten jubilatuei.

### Euskal Herriko Jaien Erakusketa

Kutxa fundazioak eta Elgetako udaletxeak antolatuta, argazki erakusketa. Ekainaren 16 eta 17an eta ekainaren 22 eta 23an egongo da eguerdiko 12:00etatik 2:00etara eta arratsaldeko 6:00etatik 8:00etara.

52 argazki egongo dira ikusgai eta udaletzeko aretoan egingo da erakusketa.

**VIVO**  
JANARI DENDA

**M<sup>a</sup> JESUS**  
**ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bidea  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.

**ER**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**  
**I**

San Roke 6  
Tel: 768168.



## PAGOMENDI ELKARTEAK BERROGEI URTE BETE

Aurten betetzen ditu berrogei urte Angiozarko Pagomendi Elkarteak eta urtero elkarteko sozio guztiak maiatzaren 1ean elkartzen badira ere, aurtengoan urteurrena gogoan eduki dute.

1956an sortu zen Pagomendi Elkartearen orduko gogoei irtenbidea eman nahian, horretarako berrogeita lau gizonezko elkartu ziren eta lokala erosi ondoren gaur egun dagoen leku berean eraiki zuten soziedadea. 1972an gaur egun duen itxura hartu zuen albo-jardinean jangela eta sukalde berriak egin zituztenez.

Berrogei urtean herriko bizimodua edota biztanle kopurua zeharo bestelakoa izan arren, soziedadeak ez du galdu indarririk eta gaur egun ere berrogeita hamabi sozio ditu. Aste bukaeratan animatzen da batez ere bertako giroa.



Nahiko joku, bokau goxo eta berriketarako leku atsegina izan da Pagomendi Elkartearen berrogei urtetan zehar. (Argazkia I. Irigarai)

Pasa den maiatzaren batean bazkideok meza eduki zuten hildako sozioen oroimenez eta ondoren, urtero lez, kalejira eta bazkaria soinu-jolearekin. Kantuen artean umorez bukatu zuten eguna Pagomendikoek.

### Diputazioak bidegurutzeari Konponduko du berriro

Gipuzkoako Foru Aldundiak duela urtebete berregituratu zuen Itxurrikuako (Bergara Elgeta Angiozartik edo GI 3360 bidea) bidegurutzeari berri konponduko du. Angiozartarrek gogoratuko dutenez kexa asko sortu zuen lana izan zen 1995ean burututakoa, bidegurutzeari zituen arazoak konpondu beharrean areagotu egin baitzituen.

Arazo larrienak Bergaratik Angiozarrerantz hartzerakoan (ia gelditu egin behar da hori egin ahal izateko) eta Angiozartik beherakoan, beste kaminora irtetzerakoan sortzen dira, ez baita ikusten inor datoren eta autoek muturra bide erdiraino atera behar izaten baitute.

Iaz firma jasotze zabala egin zen Bailara osoan eta Diputazioara bidali ere bai. Ondorioz berri aztertu dute egoera eta Bergara alderantz desazelerazio karril bat egingo dute laster, horrela oraingo bi arazok konponduko direlarik.

### Frontoiari teilatua egiteko proiektua martxan

Aspaldiko eskaera bazen ere oraingoan aurrera doala dirudi frontoiari teilatua ipini eta behar diren zerbitzu guztiez hornitzeko lana.

Guztira berrogeita hamar milioko aurrekontua duen lan honek fase desberdinak edukiko ditu bere garapenean. Bergarako Udaletik iragarri denez aurten egingo den lana proiektua idaztea izango litzaiteke, hori egin ondoren lehen fasean teilatua egin eta bigarren fase batean jarleku berriak eta bestuak.

Lan handi honekin Bergarako Udalerrin barruan konpetiziorako neurriak dituen frontoia edukitzeko helburua ere betetzen da, izan ere besteek ez baitute luzeran baldintza hori betetzen.

Beraz Angiozarko "Arbiaska" frontoia ez da izango bertakoen solaserako bakarrik, bertan pelota partidu interesgarriak ikusteko aukera edukiko baitugu, behar bada telebistaz ere bai, horretarako ere prestatuko gedituko da eta.



# LEHIAKETA

Oraingo honetan Mendi-Mendia Elkartearen afalduko du **Andoni Bolinagak**.

Zail xamarra zen nonbait asmatu beharrekoa. Irudia ez genuen desenfokatu baina hala ere gutxi eman dute erantzun zuzena. Pagoak noiz sartutakoak ziren galdetu genizuen eta kartak beste erantzun ezberdin izan ditugu. Eman dituzuen erantzunen artean 100 urteko aldean ibili zarete. Esan digute haizeak botatako pago baten enborrean irakurtzen ere ibili zaretela, liburuak kontsultatu dituzuela etab. Erantzunetan 180 urte zituela batek, 195 besteak 291, 285, 85...

Errezago izan zedin 20 urteko errorea onartzen genuen eta errore horren barruan erantzun du Andonik. Horregatik, erantzuna jakin eta **Goibekokalera** karta bat bidali duelako, berak nahi duen pertsonarekin batera afaldu ahal izango du Mendi-Mendian.

Pagoak 1828tik 1831 urte bitartean daude sartuta. Beraz lau erantzun onartu ditugu: 165, 166, 167 eta 168 urte.


Oraingo alean zer? Ba oraingo alean irudi desenfokatu hau non dagoen eta zer den asmatu beharko duzue. Pistatxo bat nahi duzuela? ba, gaur egun ez duela oso ondo funtzionatzen aurretuko dizuegu.

Erantzunak bidali **Goibekalera**.

### Goibekokale

Salbador 2- 2.a esk.  
Elgeta (Gipuzkoa)

**Segi idazten.** Ez galdu aukerarik.




Izena eta abizena: \_\_\_\_\_

Erantzuna: \_\_\_\_\_

Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA





# Realak Athletixai laga biako lotzake partidua irabazten?




**Ikaslia (16 urte)**

Ni Realistia nai baina gauzak daren moduan ikusita laga bialotzake irabazten, talde euskaldun bat da, eta bestela bigarrenera juateko arriskua dauka.




**Baserritxarra (35 urte)**

Ez, etxata pentsatzen lagakotzanik. Ni Realistia nai, etxatan gustauko Athletixak bigarren mailara jeistia. Gaur Realak irabazi deixela ta hurrengo astian Athletixak.



**Etxekoandria (48 urte)**

Niri futbola etxata asko ardura, baina etxian bi taldetakuak daukadanez nik enpate esangot. Etxatan gustauko Athletixa bigarrenera jeistia, talde euskaldun bat dalako.



**Bihargina (54 urte)**

Ez, Realak ez lotzake irabazten laga bihar, hola Alavesen kontra jolastu deitzen promoziñua.



**Bihargina (55 urte)**

Bueno laga ez, nerek enpate bat einbialotzake. Bixak euskaldunak die eta ez dot uste merezi dabenek segundara bajatzia.



**Ikaslea (21 urte)**

Ez lotzake laga bihar irabazten baiña... Bixak euskal taldiak dianek onenak irabaztia daukala. Ez jatan gustauko Athletixa jeistia.

**Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

**zeleta jatetxea**



tel:768151

gustora sentituko zara.



**KONTXI ARRAINDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



**♈ Aries:** Hirekin demaseko negozioa eiño jua txatarreruak txaposuoi.

**♉ Taurus:** Nere kontuekin enziklopedixa bat be bete heinke.

**♊ Geminis:** Makina bat astok hik baino belarri politxauak euko jittuk/n.

**♋ Cancer:** Kamioi batek baino traste gehixau erosten dok/n.

**♌ Leo:** Larrosak emoten dozue aprobetxau udabarrixa pribilejiauk.

**♍ Virgo:** Erlojua geldi daolako kejaka? zuek be ez daukazue mobimentu asko nagixok!

**♎ Libra:** Kantzaixue burua ajedrez partidatxo bat jokatuta.

**♏ Escorpio:** Hurakana pasau dala zuen kuartotik? Ez ziñan ba, zu ibiliko?

**♐ Sagitarius:** Labadoria geldi daola? Normala zuen martxia ikusita.

**♑ Capricornius:** Kontuz inguruko harrixekin, orkatillia apurtzeko peligrua dakazue eta.

**♒ Acuaris:** Heldixok/n albokuai eta eñik/n dantzaldi bat aspaldiko partez. "Bailarin".

**♓ Piscis:** Numeruak banan-banan doiazela eta ez hik nahi moduan... "Espabilbao".

## Etor Saratsua Bihargina (21 urte)

**Non eitten dozu lan? Tapenian. Noiztik zabiz lan honetan?**

Hiru hile edo, baina lehenautik be ibilita nao.

**Pasau jatzu xelebreyerixan bat lanian?** Ez. Bueno laster xelebreyer bat dator...

**Etxian laguntzen dozu?** Zeoze, noizian behin maixa altzatzen juau.

**Geixen jaten dozun frutia?** Platanua.

**Zein kale San Roke al Salvador?** Ez-bata, ez-bestia, Domingo Iturbe.

**Zer zeregin euki bihar dau gaztetxiak herrixan?** Kultur ekintzak aurrera eruatia.

**Zer falta da Elgetan?** Oñ lehen baino gauza gutxiau.

**Noiz maitemindu ziñan lehen aldiz?** (Barre eitten dau). Ez nok akordatzen.

**Jairik gustokoenak?**



jostak. Terreneuekin hobeto.

**Trontzan eiñ baino lehen zeñen alde posturia?** Zaharren alde.

**Ta oñ irabazi ta gero ze dakazu esateko galtzailiei?** Pena bat dala galtzia. Trontzan zeuala aldia.

**Bertsotan, dantzan, trontzan, hurrengo urtian zer?** Igual berdinian.

Gastau, aldanik onduen bizi.

**Zerk eiño ziñttuan zorientxu?** Nagon moduan segitziak.

**Zer musika entzuten dozu?** Danetik zeoze.

**Trikitixa ala makailua?** Bixak, segun ze herrittan.

**Soldaduzkako lehen eguna?** Bildurra. **Soldaduzkako azken eguna?** Poza, kristoneko afarixa eiñ giñuan.



Galdaragintza arina  
Hoditeria  
Erremitteritza  
Soldadura homologatuak

**Antonio Rodrigues Da Cruz**

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

## Goio Sarasua

### Igeltzeritza lanak

Telatuak  
Etxaurreak

Sukaldeak  
Komunak

Quzango Behekoa Baserria. Tel: 860156





Etxafleroek Asentzión biltzeko deia zabaldu zuten.

"ederki bete zuten lana: sukaldariak, Gure Bordako bazkideak, dantzari eta trikitalari guztiek, Trontza saioa antolatu eta burutu zutenek, tabernako lanetan aritu zirenak... Denei eskerrak eman behar zaizkie egun hau paragabea bihurtzeagatik, eta ahaztu gabe, eguraldi ona egin zezan monjetara arrautzak eraman zituztenei."



Andoni eta Hiarten trebezia oso txalotua izan zen.

nagusieneren Iribasko Zortzikoa. Dena den, zur eta lur gelditu ginen guztiok Andoni eta Hiart-ek eskeini ziguten erakusketan. Biak urduri bazeuden ere, guraso eta familiarterakoak ez zeuden gufxiago. Arin mugitu zituzten hankak eta ederki zuten entsaiatua agurra. Txalo zaparrada haundiak jaso zituzten. Gure aurrean egin zuten saio eder hori Bergaran ospatuko den Euskal Herriko Trikiti txapelketan errepikatzeko eta hobetzeko gai izango direla ziur gaude.

Ikusgarriak izan baziren dantza ekitaldiak, ez zen gutxiago izan trontza desafioak bildu zuen jendetza. Ikusleen artean Bizkaiko txapelduna, apustuak, nerbioak...

## Asentzio Egun bateko oroitzapenak

Etxafleruak, emozioz betetako egun bati hasiera ematen zion. Prestatze lanetan Elgetako jendeak eta Angiozarkoak ere parte hartu du. Udaletxe biek ere laguntza ekonomikoa eman zuten eta herritar zein auzotarrak bakoitzak bere gain hartu zuen lanaren konpromezua



Aurten ere trikiti eskolakoak animoak berotzen aritu dira.

Trikiti eskolakoak ibilbide luzea egin dute dagoeneko, ez dugu esan nahi oinez igo zirelako Elgetatik, aurten autoz igo baitira, hala ere bertan ederki jo eta ambientea sortzen dakitela erakutsi ziguten.

Dantza saioa aurten ere ikusgarria izan da. Urte guztian ikasten ihardun dute. Txikieneren, trikitixa eta



Meriturik ez zaie falta gaztetxo hauei ere. Ederki ikasi dute.

**M<sup>a</sup> Karmen**  
**Lenzeria**

Lenzeria eta  
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.  
Tel: 789040

## Banco Santander

Aintzane Zabala Urien.  
Salbador 11.  
Telefonoa: 76.82.11

Errenta  
aitorpenak  
egiten ditugu.

Orain Elgetan; jarri harremanetan eta ezagutu gure abantailak.





Ikuskizun aparta eskeini zuten "profesional" hauek.

ordezkariak izan ziren, 9 minututan 12 korte emanaz; bigarren taldeak ia 10 minutu behar izan zituen lan honetan. Apostuak parekatuak izan baziren ere irabazleak, gazteenak izan ziren. Hala ere sasoi onean zeudela erakutsi zuten E.H.N.E taldekoek.




100 pertsonak jan genuen mimoz prestatutako bazkaria.

arrainik hartu, haizearen beldur edo ez zen posible izan. Datorren urterako enbitea bota digute arrainek.

Antolatzaileek balorapen oso positiboa egin dute. Hurrengo urteetan ere jendea bilduko dela uste dute. Asentzioko paraje eder eta lasai honek merezi du.

Trontza desafio honetan, bi taldek parte hartu zuten. Batetik E.H.N.E taldea. Trontzalariak, Jose Luis Markiegi eta Sebastian Zabaleta, botilero lanetan Jose Luis Olabarria aritu zen. Bestetik eta Gazte Asanbladaren ordezkari, Etor Saratsua eta Jabier Larrañaga, Gaizka Bolinagaren laguntzarekin. Entrenamendu saioak egin zituzten bi taldeek aurreko asteetan eta azkenik irabazle, Gazte Asanbladaren



Larra eta Oto irabazle trontza desafioan.

Hainbeste ikuskizun eta emozioen ondoren gosetu ere egin zen jendea. Horretarako bazkari ederra prestatu zuten. Ia 100 pertsona bildu ziren Gure Bordaren aurrean ipini ziren mahaietan eta okela gisatuaren aztarrenik apenas gelditu zen. Haizeak gogor jotzen zuten pagoen azpian baina eguzkia ere bazegoen, bazkari eder bat eta barruak berotzeko edana. Giro jatorra eta abesti ugari bazkal ostean.

Horrela iritxi zen ermeriaren ordua eta berriz ere jende ugari bildu zen ermitaren inguruan, dantzan egitea baino ezer hobirik ez dago hotza kentzeko. Arratsaldean zehar jende ugari.

Aipatu, arrain lehiaketan 30 neska-mutilek eman zutela izena, eta harritzekoa bada ere, ez zuen inork



Bazkaldu ondoren kantu saio bikainak eta giro ederra.

IGANDE  
GOIZETAN ERE  
ZABALIK: 9-12.

**IFA** GRUPU

Tel: 76 80 98.

**ALDI**

**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262 tel: 789057-768025



## -Zergatik uste duzue dagoela eskola? -Zer egiten duzue eskolan? -Gustora joaten zara eskolara?

Kaixo *Goibekokaleko* irakurle guztioi: Gu, zazpigarren mailakoak, bederatzi ikasle gara.

Lehenengo mailakoei jolasteaz gain zer egiten duten galdetu diegu. Eskola zergatik dagoen eta handi egindakoan zer izan nahi duten esan digute. Ez zekiten zer esan eta denbora tarte handia pentsatzen egon ondoren hau da erantzun zigutena. Lehenengo mailakoak gu bezala bederatzi ikasle dira, lau mutil eta bost neska.

Miren Ibarluzea: Ikasteko eta irakurtzeko gero handi egindakoan andereinoa izateko. Eskolan ikasi eta lan egiten dugu. Gustora joaten naiz lagunekin ibiltzeko eta gauza berriak ikasteko.

Ane Elortza: Ikasteko dago eskola eta nik gehiago ez dakit. Eta handi egindakoan enfermera izan behar naiz handiei indizinuak emateko. ikastolan lanak egiten ditugu eta ikasi.

Maialen Arantzeta: Lana egiteko joaten naiz. Jolastu lanak egin eta irakurri egiten dut. eskolan irakurtzen ikasten da.

Julen Olortua: Ikasteko eta handia egiten naizenean jakiteko lanak egiten. Baturketak eta kenketak eta jolastu eta lagunekin burrukan egiten dut. Gustatzen zait eskolara joatea lana egitea gustatzen zaidalako.

Janire Lazkano: Guk ikasteko. Gero handi egindakoan pelukera izan behar naiz. Eskolan lanak eta idatzi egiten dugu eta gustatzen zait.



Eneko Maguregi: Ikasteko eta gero gauzak jakitzeko eta handi egindakoan kamionerua izateko. Gustora joaten naiz eskolara jolastu egiten dudalako.

Hiart Bolinaga: Gauzak jakiteko joaten naiz.

Handi egindakoan dantzaria izan behar naiz. Gehiketak eta kenketak egiten ditugu. Niri gustatzen zait eskolara joatea.

Pedro Estebez: Burrukan egiteko eta andereinuak bronka botatzen digu. Futbolista izan behar naiz.

Andoni Elortza: Lanak egiteko eta gero handi egindakoan korredoria izateko. Eskolan matematika egiten dugu.

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel:768273



Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA



## GALEPERRAK LABEAN:

Sukaldaria: Manu Saratsua.  
(Ozkarbi Kultur Elkarte)



### NOLA PRESTATU:

-NAHASTEA: Berakatzá, kipula, perejila, olioá, ozpina eta ardo zuria turmisaren ontzian ipini eta dena turmisarekin apurtu osagai guztiak ondo nahastu arte.

- Labeko bandeja bat hartu eta olioá igurtzi, ondoren galeperrei gatza bota eta labako bandejan jarri.

- Egindako nahastea galeperrei bota ondo bustiz eta labean sartu gaina ondo egin arte.

- Ondo eginda daudenean buelta eman eta berriz nahastea bota ondo bustiz. Ondo egin artean utzi.

- Patatak zati handietan zatitu eta olioá gutxitan bigundu.



- Laban sartu daitekeen tapadun ontzi batean patatak ipini eta ondoren gainean galeperrak.

- Galeperrak egin diren bandeja hartu eta salda bota bertako saltsari, sutan berotuz biak ondo nahastu arte.

Saltsa egiten denean galeperrei gainetik bota eta ontziari tapa jarri, labea itzali eta bertan sartu 10 minututan.

### OSAGAIK (2 pertsonentzako):

- 6 galeper.
- Patatak.
- 4 berakatz agin (ale).
- 1/2 kipula.
- Perejila.
- Baso erdi olio.
- Baso bat Ardao zuri.
- Baso erdi ozpín.
- Gatza.



**Gomendioa:** Nahastea ondo prestatuz gero seguru platerak arrakasta izango duela.

## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA



## Ubera eta Inurrategi Zaragamako txapelkun.

Ubera eta Inurrategi 22 eta 15eko emaitzaz gainditu zituzten Zaragamako txapelketako finalean Berazaluze VIII.ena eta Azkune bizkaitarrak. Lehia nahiko berdindua izan zen partidu erdirarte baina, hortik aurrera beren nagusitasuna erakutsi zuten elgetarrak eta eskoriatzarrak.

4 t/erdiko txapelketan berriz, ez dugu elgetar ordezkariarik. Uberak Erostarbe zumarragatarraren aurka galdu zuen 22-17. Emaitza hau ezusteko bezala kontsideratu daiteke. Arantzeta bestalde, ezin izan zuen Leiza gainditu 22 eta 13 galduz. Eñautek nahiko txapelketa ona jokatu du.

Deba aroko txapelketan, jadanik final atarian daude gure ordezkariak. Infantilak eta jubenilak sailkatu dira dagoeneko, nagusiek berriz, oso zaila izango dute sailkapena joaneko partiduan galdu egin baitzuten. Finalak ekainaren 9an jokatu dira elgetako frontoi munizipalean.

## Askasibar 36. Bidasoako itzulian.

Bere lehen partaidetzan Oskar Askasibarrek 36. postuan amaitu du Bidasoako Itzulia irabazlearengandik 17 minututara. Gipuzkoako txirrindulariz osatutako konbinatu batean korritu du, bere taldea (Arrasateko Txirrindulari Elkarte) ez baitzen gonbidatua izan. Itzuli honetan Banestoko Osa izan da irabazlea.

# REBEKA UBERA: "GURE HELBURU NAGUSIA KANTERA SORTZEA DA"

Rebeka Ubera duela lau urte hasi zen futbolean. Lehenengo bi urteak Aretxabaletako taldean jokatu ondoren iaz Arrasatera pasatu zen. Aurten igotzea lortu dute eta "gorputzak iraun arte" jarraituko duela adierazi digu.

**- Noiz eta nola hasi zinen futbol munduan?**

Nahiko berandu hasi nintzen futbolean jokatzeko. Duela lau urte lagun batek jokatzeko animatu ninduen eta apuntatzea erabaki nuen. Lehenengo bi urteak Aretxabaletako taldean egin nituen eta azken biak Arrasaten.

**- Giro ona al dago zuen artean?**

Oso ona. Gure artean asko elkartzen gara, "juergatxo" batzuk egiteko, bazkaltzeko etab. Esan daiteke futbol talde bat baino gehiago lagun talde bat garelako.

**- Igoera lortu ondoren ze helburu daukazue datorren denboraldira begira?**

Gure helburu nagusia nesken harrobia sortzea da eta horretarako beste talde bat eratzea pentsatuta daukagu.

Bestalde, hurrengo denboraldian "Nazionalean" jokatu dugu, bertan "gera" pisat ematea delarik gure helburua.

**- Ze diferentzia dago nesken eta mutilen arteko futbolaren artean?**

Alde nabarmenena indarrean dago. Egia da baita, oraindik neska eta mutilen artean bada goela aldea batez ere neskek oraintsu hasi garelako futbol munduan, baina badaude neska batzuk mutil askok baino hobeto jokatzeko dutenak.

**- Jende asko joaten al da partiduetan ikustera?**

Bai, nahiko jende joaten da. Badaude talde batzuk jende asko mugitzen dutenak.

**- Noiz arte futboleant?**

Ez dakit. Gorputzak aguantatu arte.



Arrasate futbol taldeak liga nazionala jokatu du datorren urtean.

## BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea. Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24  
Tel: 76 82 06

## HAIZEA TABERNA



giro atsegina lagunartean egoteko.  
Tel: 768256

## IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E. Ibaibarriaga  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA



# HIRU TALDE BI POSTUREN BILA

Zeleta, Patxi eta Urien talde-taldek bik jokatu dituzte finalerdia. Hiru talde hauek lehia gogorren dabilta finalerdietarako txarrela lortzeko. Beste bi postuak, ezustekorik gertatzen ez bada, Txapela eta Heskeita kentzako izango dira.

Azkenengo ihardunaldiko emaitzei esker Patxi eta Zeleta izango lirake sailkatuak, baina ez dugu ahaztu behar Urienek partidu bat gutxiago jokatu duela. Patxi, Heskeitaren aurka ezustekoa eman zuen 11 eta 3ko emaitzaz irabaziz. Partidu hau ez zen oso normala izan Patxi-koak jende gabe joan baitziren eta Heskeitakekoekin nahastuta jokatu baitzuten.

Irama eta Urienek jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zen lehenak jende gabe joan zirelako. Txapelak eta Zeletak jokatu zuten partidua 4 eta 0ko emaitzaz amaitu zen. Esan beharra dago Zeleta pixkanaka pixkanaka beherantz etorri dela txapelketa



Aurtengo finalerdia inoiz baino parekatuagoak izango dira.

luzatu ahala.

Nesken txapelketa ere inoiz baino berdindugoa. Hasiara batean bazirudien Joixon Bertanekoek ez zutela arazo handirik izango txapelketa irabazteko, baina argi geratu da Gaztiak ezustekoa emateko gai direla. Azken ihardunaldian Joixon Bertanek ez zuen inongo arazorik izan oraindik punturik lortu ez duen RIRAUren aurka irabazteko. Azken emaitza 7 eta 1lekoa izan zen.

## Sailkapenak

Mutilak	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Txapela	11	9	1	1	19
2.- Heskeitak	11	7	2	2	16
3.- Patxi T.	12	5	4	3	14
4.- Zeleta	12	5	3	4	13
5.- Urien	11	6	0	5	12
6.- H.H.H.E.P.	12	4	1	7	9
7.- Ay! te va	10	2	2	6	6
8.- Irama	13	1	1	11	3

### Goleatzaileak:

H. Gallastegi (Txapela) 44 gol  
Oxel (Patxi T.) 30 gol

Neskak	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Joixon bertan	8	6	0	2	12
2.- Gaztiak	7	5	0	2	10
3.- Txalaixok	7	4	0	3	8
4.- Rirau	8	0	0	8	0

### Goleatzaileak:

Eneritz (Joixon B.) 16 gol  
Jessica (Txalaixok) 12 gol

Mª  
ESTHER  
Tel: 76 81 67




## URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

## EROSLE



M. Asun Agirre

Salbador.26. Tel: 768190





Ubera aldetik hasiz gero, Urrejolaegi dugu lehenengo baserria. Bi bizitzako baserria dugu berau.

## ISUSIGARRA AUZOA (III)

-ARANTZETA AUZOTIK BAGOAZ ERREPIDEAREN BESTE ALDEAN DAUDEN  
BASERRI ETA PAISIAK EZAGUTZERA-

Isusigarra auzoa industria-  
lizazioarekin batera gehien hustu  
den Elgetako auzoetako bat da.  
Baserri asko oso hondaturik aurki-  
tu ditugu eta honekin batera herri  
bideak eta baserrietara heltzen  
diren errepideak sasiak janda edo  
ia desagertuta. Uberatik Elgetarako  
irteeran ezkerretara hartuz gero,  
Isusigarra auzoan sartzeko aukera  
duzue. Toki hezea da eta zuhaitziz  
beteta dago Asentzio azpiko paraje  
hau.

Errekasto ugari dago para-  
je honetan, eta ur hauetaz baliatzen  
da "Lagun Artea" errota. Errota hau  
1899. urtean agertzen da Gipuzkoa-  
ko Boletin Ofizialean. Bi harri pare  
ditu eta indar emalea inguruko  
erreketatik datorkio: Iturritxo, Art-  
xuloa, Aluna zuri, Asto erreka eta  
Zabaleko erreka. Lehen lau erreka-  
tako urak, presa batetan biltzen  
dira. Presa hau errotaren goiko  
aldean kokatzen da. Urak biltzeko  
errekatako ura kanal baten bidez

eramaten da. 200 metro inguruko  
luzera du eta metro erdiko zabale-  
ra. Kanal honen muturrean ur bilte-  
gia dago. Hemendik ur jauzi

*Lagun Artea errota, Isu-  
sigarre auzoan dago.  
1969.an izan zuen azken  
industri lizentzia. Itur-  
ritxo, Hartxuloa, Alu-  
nazuri, Asto erreka eta  
Zabale erreketatik  
jasotzen ditu urak erro-  
ta honek.*

indartsu bat abiatzen da errota-  
rantz. 1963. urtean izan zuen azken  
industri lizentzia. Agiri honetan  
Anastasio Arantzeta, Urrejolaegiza-  
rra ( Urrujalei) baserrikoa agertzen  
da azken titular.

Ibilbidea Uberatik edo  
Elgetatik egin dezakegu. Uberatik  
hasiz gero, lehenengo baserria  
Urrejalei zaharra da. Bi bizitzako  
baserria da. Erregistroan 1854. urte-  
an agertzen bada ere, AnastasioA-  
rantzetak esan zigunez lehenago-  
koa omen da. Baserriaren izenaren  
inguruan bi istorio daude. Batek  
esaten duenez, urrezko galdara bat  
gordeta dago, baserriaren inguruan  
lurperatuta. Beste istorioa ez da  
hain erakargarria, garai baten  
urkiak zeuden landatuta ingurue-  
tan eta ondorioz urkiak zeuden  
tokia izendatzeko Urrejolaegi izena  
hartu zuen baserriak.

**Albistei, desagertzean dagoen  
baserria**

Urrejaleiko etxe ostetik  
Mendikutera eta Albisteira heldu  
daiteke. Lehena zelaiez inguratua  
dagoen bitartean bigarrena pina-  
dien erdian dago. Albisteik baserri  
ederra behar zuen baina gaur egun



*Isusigarre auzoa dugu, industrializazioak baserritar munduan eragindako aldaketaren testigu. Soroz eta baserriz beteta zeuden paraje hauek, sasiaren eremu dira orain*

itxura penagarria dauka. Hiru solairu ditu eta ikaragarri handia da, batik bat ikuiluen aldea. Teilatua jausten hasi zen duela urte batzuk eta honekin batera barruko eskailera eta atea desagertu egin dira. Inguruko hezetasuna egurrezko habeak jaten hasi da eta pixkanaka beherantz doa Albisteiko baserri ikaragarri hori. Ikuiluan, zurezko habeak harrizkoen gainean tinko diraute oraindik. Sukaldeko aztarrenak ere badaude eta untxitegiak, behientzako aska zein jantokiak osorik ikus daitezke. Orain ahuntz, txori eta xaguen bizitoki aparta bihurtudela ikusi genuen.



Eguluze baserria, Elgetatik Bergarara zihoan herribidearen gainekaldean dago, Zabale eta Eguren baserrien tartean.

### Errota gaineko presa

Albisteitik behera pista batean abiatu eta ezkerretara, ton-torrean aurkituko dugu, lehen aipatu dugun presatxo. Pistina txiki baten tamaina dauka eta hiru bat metroko sakonera.

Presatxo honetara heltzen den kanala jarraituz Zabale baserriaren azpialdera ailegatu da. 3 eraikuntzak osatzen dute Zabale: baserriak eta bi biltegiak. Baserria egoera txarrean dago, alde bateko teilatua behean baitago. Biltegiak ordea nahiko egoera onean mantentzen dira.

Zabale gainekaldean Eguluze eta Eguren ikusten dira. Ber-

tara heltzeko Zabaleko etxe ostetik ateratzen den bidezidorra hartu genuen. Bidezidor hau lehenago Osintxuneko etxekontratik atera eta Bergarako Santamañaraino zihoan herribide bat omen zen. Gaur egun una batzuetan ibil daiteke bertatik, sasia baita nagusi bide zati askotan.

Aipatzeko gelditzen zaizkigun 4 baserriak, Elgetatik Asentzio inguruetara eramango gaituzte. Elgetatik ateratzeaz bat, Otola ikusiko dugu bide azpian. Salvador inguruetan "atajua" hartuta aurrera joanez gero, Olatza, Miraballes eta Udaixa. Azken hau lehen hiru bizitzako etxea izan bazen ere gaur egun jausteko puntuan dago.

Isusigarra auzoa dugu beraz, industrializazioak baserritar munduan eragindako aldaketaren testigu. Lehenago soroz eta baserri betetako parajeen, gaur egun sasia da jaun da jabe.



Zabale baserria 3 eraikuntzaz dago osatuta, baserria eta 2 biltegi. Biltegiak ondo mantentzen diren arren, baserriaren teillatuak behea jo du.



## ASENTZIOKIN AKORDAUAZ

Juan zan eguenian egun ederra argittu eban. Goizian goiz jaiki eta zero guztia urdin, argi eta ederra eguan, mendi gain guztiak itxura garbixakin, paguak eta aritzak ostro barrixekin, zelaixak bedar xamur barriz jantzitta, txori kantuak nunai, egun ederra pasiara bat emoteko!. Beriala etorri jatan burura: Gaur Asentzio eguna dok!.

Oiñ urte batzuk, Asentzio eguna jai izaten zan. Besperan, ordu bixetan kanpaiak entzun eta pozik izaten giñan gu egun hau etortzeko, ba udaberrio lehenengotako jai eguna izaten zan, eta Elgetan berezixa.

Zalantza barik, Elgetako erromerixa egunetatik onena. Danen iritzixa ez da izango hori, bihar bada, baña bai neria beñipein.

Eta zer pasatzen dala..., ta lanera jua bihar dala, gure "elixa indartzua" ta politiko "jakin-tsuen" erabakixengaittik.

Ez dakitt konturatuko ziñen, ixa Europa osuan Asentzio eguna jai izaten dala, eta aspaldi finkatu zittuela jai nagusixak "demokrazian", baña hori bai, ez dabe jai egitten "Erregena", Santiago "Matamoros", "Pilarika" ta "Kontzesiño", beste batzuen artian. Berriz hemen, horrek eta beste horrelako batzuk, Asentzio edo Korpus ta halakuak kenduta... Ondiokan badago bai aldia "homologatzeko" Europakin, baita jaixak ospatzen eta errespetatzen be.

Baña laga deigun arlo hori eta jua gaittian Asentziokin akordatzera. Erminttian jatorrixa oso zaharra da. Ibili nintzian pixkat

aztertzen gai hau, 1.500 inguruan bazala jakin neban, ta modu berezixan sortu ta administratu zala beti. Batetik, Angiozarko Elixian menpe ipiñi zalako, ta bestetik, bere partaidetzan auzo desberdiñak sartzen ziralako baña lenengotik euki eban "Hermandade" bat bera gobernatzeko. Horrek pentsatu erain ostan, tokixa, Asentzioko ingurua, lehenau be biltzar, billera, jai, rito edo horrelako zerozertarako ibiltzen zala.

Garai hartan, izan zan joera bat, kristautasun aurretik egon ziran ospakizun edo sinismenak, zentzu barri bat emon eta kristauta-



sunera bihurtzeko. Hor dare Olentzero ta Gabonak; Iñauteri, etab. Holako aldaketak bi arrazoigaittik eitten ziran, lenengo, ez iztillo haundirik sortzeko oitura gogorak debekatuta, eta bigarren, indar barrixak, politiko ta sozialki aldakuntza haundixak ekarriko zittuanak, poliki, poliki sartzen juateko erlligiño barrixan laguntasunez. Ba ez da ahaztu bihar, kristautasuna sar-tziak, Euskal Herrira, izugarrizko aldakuntzak ekarri zittuala

bere barreneko antolakuntzan.

Dana dala, Asentzio beolan "rekonbertidu" bazan, beintzat erromerixa geldittu zan, ta fama oso haundikua gañera, ba geure akordurarte, Andramarixetan baño toki gehixautik etortzen zan jentia Asentziara.

Herrittik kanpora bizi zanian, akorduan gelditzen jatzuz une eta oroimen onenak, eta pentsatzen dozu harek ezin diala aldatu, edo aldatzen badira, ba halako zertxo bat galdu dabela.


Asentzioko kasuan, aldaketa gogorra izan da. Ba jai izatia kentziakin referentzia nabarmenena kendu dotze. Jaixa, erromerixa, billera alaixa, ospakizuna; nere uztetan Asentzion zentzua.

Horregaittik uzten dot, Elgetarrok, aletin guztia egin bihar dozuela jaixa gordezten eta berreskuratzen. Alde batetik, inguru ikusgarri hori eukitta, eta beste aldetik, udaberriko sasoirik ederrena izanda, nik hau proposatuko notzuen, JAI FOLK-EKOLOGIKUA antolatzia urtero.

Folk esaten dot, merezi dabelako errespeto bat erromerixa jator baten giruak, bihar bada kristautasun aurretik datorren ospakizun euskalduna.


Eta Ekologikua, ba... Asentziok merezi dabelako zaintzia eta hobetzia. Ia "Maritxu Kajoi" ta halako jaixak baño zentzunezkuaua eta sanuaua izaten dan, norberan gorputzerako eta ingururako.

Jon Arantzeta Ulazia



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Aretkale 3.  
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELATAN**







Argazkia: Garbiñe Irtzabal

## Gaztetan buruturiko dantza saioaren osteko bazkaria

Izenburuak dioten bezala, dantza saio baten osteko bazkariko erretratu da. Bertako kideek ez dakite oso ondo zer egin zuten 1973 edo 1974 urteko egun horretan. Bi aukera dira nagusi: arkua jarri zutela Angiozarren bodaren batean edo bestela dantza saioaren bat egin zutela.

Kontuak kontu azkenean bazkari baten bukatu zuten, nola ez. Beraz, erretratu hau Angiozarko beheko tabernan ateratakoa da.

Erretratu ikusi orduko, galderaren bat bururatuko zaizuela espero dugu, guri behintzat horrela gertatu zaigu. Baina, dantza edo arkua jarri bazuten, zergatik ageri dira dantzako jantziak kenduta?


Argazkiko bi kideri galdetu diegu eta beraiek ere ez dakite horren erantzuna.

Beste galdera baten erantzuna ematera pasako gara segidan, nortzuk diren argazkian ageri diren pertsonaiak hain zuzen ere.

Behetik hasita eta ezkerretik eskumara: Elisabet Alberdi, Ana M<sup>a</sup> Gallastegi, M<sup>a</sup>Lurdes Olabarria, M<sup>a</sup> Jesus Markiegi, Garbiñe Irtzabal eta M<sup>a</sup> Asun Zenitagoia.

Erdian: Josean Olabarria, Laura Arantzabal, Jabier Arantzeta, Arantxa Alberdi, Jose Luis Arantzeta, M<sup>a</sup> Karmen Irtzabal, Jaione Basauri.

Goian: Jon Agirrezaldegi, Sebastian Arantzeta, Enrike Ormaetxea, Migel Arantzeta.



*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatu.





**EGAÑA**  
Soldadura



**EGAÑA**  
Gas  
industrialala

Berriondokua industrialdea 7

20690 ELGETA

Tel. 78 90 61 - Faxe 78 90 14



**ETXERAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO**

- BEROGAILUAK
- AIRE EGOKITUA
- GASA

**Elgetako Aldizkaria**

**Helbidea:**  
Salbador kalea 2, Elgeta (Gipuzkoa)  
**Telefonoa:** 78.90.85.  
**Faxe:** 76.82.89.